

# UPV/EHU **11/12**

unibertsitatera  
sartzeko bideak  
acceso a la  
universidad



[www.ehu.es](http://www.ehu.es)

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



# UNIBERTSITATERA SARTZEKO BIDEAK

---

## ACCESO A LA UNIVERSIDAD

Curso 2011/2012 Ikasturtea

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

AKADEMIA ANTOLAKUNTZAKO ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE ORGANIZACIÓN ACADÉMICA

*Oharra:* 2011/2012 ikasterterako gidaliburu hau informazio-iturria baino ez da. Ez du legezko baliorik eta, beraz, ezin da erabili errekurtsoen oinarri gisa.

Interneteko helbidea: **<http://www.ehu.es>**

*Nota:* Esta Guía de Acceso a la Universidad 2011/2012 tiene carácter exclusivamente informativo y no legal, por lo que no se podrá utilizar como base para ningún recurso.

Dirección de Internet: **<http://www.ehu.es>**

# AURKIBIDEA / ÍNDICE

<b>Errektorearen aurkezpena</b> .....	7
<b>Presentación del Rector</b> .....	9
<b>1. Unibertsitateko ikasketen erreforma</b> .....	11
<b>2. Gradu ikasketa ofizialetarako sarrera</b> .....	15
– Batxilergotik sartzea .....	17
– Goi mailako heziketa-zikloetatik sartzea .....	22
– 25 urtetik gorakoak unibertsitatera sartzeko bidea .....	27
– 45 urtetik gorakoak unibertsitatera sartzeko bidea .....	30
– Lan esperientzia egiaztatuz sartzeko bidea .....	32
– Atzerrian ikasi duten ikasleak sartzeko bidea .....	35
<b>3. UPV/EHUn sartzeko prozedura</b> .....	37
– Sarbide motak eta dokumentazioa .....	39
– Gordetako plazak .....	40
– Izena emateko prozesua eta onarpena .....	40
– Tramiteen egutegia .....	42
– Aurreko ikasturteko plaza kopuruak eta gutxieneko notak .....	43
– Proba bereziak dauzkaten titulazioetara sartzea .....	48
– Titulazio bat baino gehiago aldi berean egitea .....	48
<b>4. UPV/EHUko ikastegiak eta titulazioak</b> .....	49
<b>5. Informazio orokorra</b> .....	59
– Informazio-bulegoak .....	61
– UPV/EHUko zerbitzuak .....	61
– Bekak .....	62
– Prezio publikoak .....	63
<hr/>	
<b>1. Reforma de las enseñanzas universitarias</b> .....	65
<b>2. Acceso a los estudios oficiales de grado</b> .....	71
– Acceso desde el Bachillerato .....	73
– Acceso desde los ciclos formativos de grado superior .....	78
– Acceso a la Universidad para mayores de 25 años .....	83
– Acceso a la Universidad para mayores de 45 años .....	86
– Acceso por acreditación de experiencia laboral o profesional .....	88
– Estudiantes procedentes de otros sistemas educativos .....	91
<b>3. Procedimiento para el ingreso en la UPV/EHU</b> .....	93
– Vías de acceso y documentación .....	95
– Reserva de plazas .....	96
– Preinscripción y admisión .....	96

– Calendario de trámites . . . . .	98
– Límite de plazas y nota de corte del curso anterior . . . . .	99
– Acceso a titulaciones con prueba específica . . . . .	104
– Simultaneidad de estudios . . . . .	104
<b>4. Centros de la UPV/EHU y titulaciones que imparten . . . . .</b>	<b>105</b>
<b>5. Información general . . . . .</b>	<b>115</b>
– Servicios generales de información . . . . .	117
– Servicios de la UPV/EHU . . . . .	117
– Becas . . . . .	118
– Precios públicos . . . . .	119

## ERREKTOREAREN AURKEZPENA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektore legez, oso pozgarria da niretzat unibertsitateko kide guztien izenean zuei hitzok esatea, Unibertsitatera Sartzeko Gida aurkezteko. Gida irakurtzen ari bazarete, graduko titulua lortzeko ikasten jarraitzea erabaki duzuelako da, eta zoriondu egin nahi zaituztet, hori erronka pertsonala eta profesionala baita. Gidak unibertsitaterako sarbidea erraztu nahi dizue eta, horretarako, informazio praktikoa eta eskuragarria eskaintzen du. Lagungarria izatea espero dut zuen ikasketa aukera behin betiko bideratzeko eta gure erakundearekiko lehenengo hartu-emanean egin beharreko izapideak errazteko.

IÑAKI GOIRIZELAIA  
UPV/EHUko errektorea





## PRESENTACIÓN DEL RECTOR

Como Rector de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, es para mí una gran satisfacción dirigiros estas palabras, en nombre de la comunidad universitaria, para presentar la Guía de Acceso a la Universidad. Si la estáis leyendo es porque habéis decido continuar vuestra formación para obtener un título de grado, y quiero felicitaros por lo que ello supone de apuesta personal y profesional. El objeto de la guía es facilitar vuestra llegada a la universidad, a través de una información práctica y accesible. Espero que ella os ayude a orientar definitivamente vuestra opción formativa y os facilite los trámites en vuestro primer contacto con nuestra institución.

IÑAKI GOIRIZELAIA  
Rector de la UPV/EHU



**1**

**UNIBERTSITATEKO IKASKETEN ERREFORMA**

---



## UNIBERTSITATEKO IKASKETEN ERREFORMA

Unibertsitateko ikasketen antolaketa berria Bolognako Adierazpenarekin hasi zen 1999an, 2010. urterako Europako Unibertsitate Eremua sortzeko helburuarekin. Europako Unibertsitate Eremua ezartzearekin bilduko dira Europako goi mailako hezkuntza sistema desberdinak sistema homogeneo, bateragarri, malgu eta gardenago batean eta horri esker errazago ulertuko dira Europako edozein unibertsitatetan lortutako titulazioak. Aldaketak ikasleen eta etorkizuneko profesionalen mugikortasuna ere bultzatuko dira.

Hona hemen erreformaren puntu nagusiak:


### 1. ECTS kreditu-sistema (European Credit Transfer System)

Kreditu europarra neurri-unitate berri bat da, ikasleak eta euren ikaskuntza ardatz dituena. Ikasketa-plan baten helburuak betetzeko ikasleak egin behar duen lan-bolumena adierazten du. Unitate horretan baten dira ikasketa teoriko eta praktikoak, bestelako jarduera akademikoak, ikastorduak, lanorduak eta ebaluazio-probak prestatu eta egiteari emandako orduak. ECTS kreditu edo kreditu europar bakoitzak gutxienez 25 ordu eta gehienez 30 balio du.

Sistema berri honetan ikasturte bakoitzean 60 kreditu egin behar dira.

### 2. Unibertsitateko ikasketen egitura berria

Estatu osoan balio duten titulu ofizialak lortzeko ikasketak hiru ziklotan egituratzen dira: gradua, masterra eta doktoregoa.



**Graduko ikasketen helburua** da prestakuntza orokorra ematea jarduera profesionalari begira. Ikasketa hauen bukaeran gradu-amaierako

lana egin eta defendatu behar du ikasleak. **Master ikasketen helburua** da prestakuntza aurreratua ematea, espezializatua edo diziplinartekoa, espezializazio akademiko edo profesionalari begira edo ikerketan has-teari begira. Azkenik, **doktoregoko ikasketen helburua** da prestakun-tza aurreratua ematea ikerketa-tekniketan. Ikasleak doktorego-tesia egin eta aurkeztu beharko du, hots, ikerlan original bat.

### **3. Unibertsitatearen autonomia**

Unibertsitateek proposatuko dituzte ikasketak eta tituluak, men egin behar izan barik gobernuak aurretik ezarritako katalogo bati (orain arte egiten zen bezala).

### **4. Tituluaren kalitatea egiaztatu eta ofizialtasuna lortzeko sistema**

Unibertsitateek egindako ikasketa-planak 6 urterik behin ebaluatu beharko dira, tituluak ofizialtasuna eta balioa izaten jarrai dezaten estatu osoan. Kalitatea Ebaluatzeko Agentziek egingo dute ebaluazioa.

### **5. Aparteko jarraibideak dauzkaten titulazioak**

Badira aparteko jarraibideak dauzkaten titulazioak, euren edukiak, gaitasunak eta iraupenak zehazten dituzten legezko xedapenek edota Europako jarraibideek emanak. Esaterako, badira gradu batzuk titulazio gehien 240 kredituak baino gehiago dituztenak: Medikuntza (360 kreditu), Odontologia (300 kreditu), Arkitektura (330 kreditu) eta Farmazia (300 kreditu).

### **6. Tituluaren europar gehigarria (TEG)**

Dokumentu bat da, Europako Unibertsitate Eremuan araututako formatuan egindakoa, unibertsitateko titulu ofizial guztiei eransten zaiena. Tituludun bakoitzari dagokion informazioa biltzen du: egindako ikasketak, lortutako emaitzak, eskuratutako gaitasun profesionalak eta titulazio horrek goi hezkuntzako sistema nazionalean daukan maila.

Haren helburua da Europako herrialdeetan ematen diren goi mailako titulazioen gardentasuna areagotzea, titulazioen aitortpena errazagoa izateko, ikasleen mugikortasuna bultzatzeko eta Europako lan merkatuan errazago sartzeko.

Informazio gehiago [www.ehu.es](http://www.ehu.es) helbidean.

GRADU IKASKETA OFIZIALETARAKO SARRERA

---





2008ko azaroaren 24ko Estatuko Buletin Ofizialean azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretua argitaratu zen, Espainiako unibertsitate publikoetan graduko unibertsitate-ikasketa ofizialetara sartzeko baldintzak eta ikasleak onartzeko prozedurak arautzen dituen. Geroago, honako hauek ere argitaratu ziren: maiatzaren 29ko EDU/1434/2009 Agindua, EDU/268/2010 Agindua eta maiatzaren 7ko 558/2010 Errege Dekretua, lehen aipatutako Errege Dekretua aldatzen duena. Bertan zehazten dira unibertsitate hainbat bidetatik sartzeko prozedurak; bereziki, Batxilergo titulua duten eta unibertsitate sartzeko proba egin duten ikasleak sartzeko prozedura.

### Proba

Fase bi dauzka: orokorra eta espezifikoa:

**Fase orokorra:** batxilergoa amaitzean ikasleek graduko unibertsitate-ikasketa ofizialak egiteko izan beharreko heldutasuna eta oinarritzko trebetasunak dituzten ala ez neurtzea du helburu. Honako azterketa hauek biltzen ditu:

1. **Gaztelania eta Literaturako testu baten iruzkina egitea.**
2. **Euskara eta Literaturako testu baten iruzkina egitea.**
3. **Irakasgai komuna.** Batxilergoko gai komunetako bat aukeratu behar da: Filosofiaren Historia edo Historia.
4. **Atzerriko hizkuntzako testu bat aztertzea.** Haren helbura da neurtzea ahozkoaren eta irakurritakoaren ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena. Ahozko proba ez da sartuko indarrean 2011-12 ikasturtera arte.
5. **Batxilergoko 2. mailako modalitateko gaia**

Azterketa bakoitzak ordu eta erdi iraungo du.

Azterketa bakoitzari 0 puntutik 10 puntura bitartean emango zaio. Kalifikazioa izango da azterketa guztietako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa, hiru dezimalekin.

**Fase espezifikoa: borondatezkoa** da. Haren helburua da neurtzea ikaslearen ezagutzak eta arrazontzeko gaitasuna arlo jakin batzuetan, alegia, **unibertsitatean egin nahi dituen ikasketekin zerikusia duten arloetan. Fase honek aukera ematen dio ikasleari fase orokorrean lortutako kalifikazioa hobetzeko.** Parte espezifikotan ikasle bakoitzak Batxilergoko bigarren mailako modalitateko edozein gai aukera dezake,

fase orokorrerako aukeratu duena izan ezik. Gehienez lau gairen azterketak egin ahal izango ditu fase espezifiko honetan.

Azterketa bakoitzak ordu eta erdi iraungo du.

Gai bakoitzari 0 puntutik 10 puntura bitartean emango zaio. Nota kontuan hartzeko, ikasleak 5 puntu edo gehiago lortu beharko ditu.

Bigarren hezkuntzako ikastetxearen bidez izena ematen duenean ikasleak adierazi beharko du zein irakasgairen azterketa egingo duen fase orokorrean eta zein irakasgairena fase espezifikoan, bigarren hau eginez gero.

Batxilergoko bigarren mailako modalitateko gai jakin bateko azterketak berdinak izango dira fase orokorrean eta espezifikoan. Bi aukera izango dituzte, eta ikasleak horietatik bat hautatu beharko du. Edozelan ere, aukera itxiak izango dira.

Ariketak honela bana litezke:

	ASTEAZKENA	OSTEGUNA		OSTIRALA
	Ohiko deialdia: ekainak 8 Ezohiko deialdia: uztailak 6	Ohiko deialdia: ekainak 9 Ezohiko deialdia: uztailak 7		Ohiko deialdia: ekainak 10 Ezohiko deialdia: uztailak 8
08:45-09:00	Aurkezpena			
09:00-10:30	Gaztelania eta Literatura	Euskara eta Literatura	09:00-10:30	Modalitateko gaia
10:30-11:15	Atsedena		10:30-11:15	Atsedena
11:15-12:45	Filosofiaren Historia Historia	Atzerriko Hizkuntza	11:15-12:45	Modalitateko gaia
12:45-15:00	Atsedena		12:45-13:30	Atsedena
15:00-16:30	Modalitateko gaia	Modalitateko gaia	13:30-15:00	Modalitateko gaia
16:30-17:15	Atsedena			
17:15-18:45	Modalitateko gaia	Modalitateko gaia		

## Proba gainditzeko zer behar den

Batxilergoko notaren eta fase orokorreko kalifikazioaren artean egindako batez besteko nota haztatuan (% 60 batxilergoari dagokio eta % 40 fase orokorrari) 5 puntu edo gehiago lortuz gero, proba gainditzat joko da, baldin eta ikasleak fase orokorrean gutxienez **4 puntu** lortu baditu.

## Nota hobetzea

Ikaslea deialdi batean baino gehiagotan aurkeztu ahal izango da fase orokorreko kalifikazioa edo fase espezifikoko galren bateko kalifikazioa hobetzeko. Azken deialdian lortutako kalifikazioa hartuko da kontuan, betiere aurrekoa baino hobea bada. Fase orokorra gaindituz gero, nota hori gorde egingo zaio ikasleari mugarik gabe; fase espezifikoko notak, berriz, azterketak egin eta hurrengo bi ikasturteetan bakarrik gordeko zaizkio.

## Kalifikazioak berrikustea

1. Ikasleak epaimahaiko presidenteari ariketak berriro zuzentzeko eskaera egin diezaioke, baldin eta ikaslearen ustez ez badira behar bezala ezarri ebaluatzeko irizpide orokorrak eta zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpide espezifikoak. Ikasleak antolaketa-batzordeari ere egin ahal izango dio erreklamazioa; honela egitekotan, bigarren zuzenketa eskatzeko aukera galduko da. Erreklamazioa egiteko epea hiru egun balioduneko izango da, kalifikazioa argitaratuko denetik kontatzen hasita.

2. Erreklamatu diren ariketak berrikusiko dira, atal guztiak ebaluatu direla egiaztatzeko eta ebaluatzeko irizpide orokorren eta zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpide espezifikoen arabera egin dela egiaztatzeko. Horretaz gain, azken kalifikazioa kalkulatzean ez dela akatsik izan konprobatuko da.

3. Bigarren zuzenketa ez du egingo lehenengo zuzenketa egin duen irakasle berak, ezpada beste irakasle berezitu batek.

Azken emaitza bi zuzenketetan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da. Bi zuzenketetako kalifikazioen artean bi puntu edo gehiagoko aldea badago, hirugarren epaimahai batek zuzenduko du berriro azterketa ofizioz. Azken emaitza hiru kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da. Hori guztiori, bost egun balioduneko epean egingo da, aurreko puntuan zehaztutako epea bukatzen den egunetik kontatzen hasita.


Azterketa bi aldiz zuzendu ondoren lortutako emaitza dela-eta ikasleek erreklamazioa egin ahal izango diote antolaketa-batzordeari. Horretarako hiru egun balioduneko epea izango dute, erreklamatuko duten kalifikazioa argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Zuzenketa eta erreklamazio prozesu osoa amaitu ondoren, ikasleak zuzendutako azterketa ikusteko eskubidea izango du, hamar eguneko epean.

4. Antolaketa-batzordeak erabakiko ditu erreklamatu diren ariketen azken emaitzak, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta errekla-

mazioa egin dutenei jakinaraziko dizkie. Erabakiak amaiera emango dio administrazio-bideari.

- 2008ko azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretuaren 18. artikulua arautua.
- Ariketa zehatz bakoitzerako bi bide jarraitu ahal dira:
  - Antolakuntza Batzordearen aurreko erreklamazioa.
  - Bigarren zuzenketa egiteko eskaera eta jarraian, hala badagokio, Antolakuntza Batzordearen aurreko erreklamazioa



## Unibertsitateko ikasketak egiteko onarpen-nota

Eskaera kopurua plaza kopurua baino handiagoa den graduetan, onarpen-nota erabiliko da plazak esleitzeko. Onarpen-nota formula honen arabera kalkulatu da:

$$\text{Onarpen-nota} = 0,6 \times \text{BBN} + 0,4 \times \text{FOK} + a \times \text{M1} + b \times \text{M2}$$

BBN = Batxilergoko batez besteko nota

FOK = Fase orokorreko kalifikazioa

M1, M2 = Fase espezifikoan gaitutako gaietako bi kalifikazio onenak

a, b = Fase espezifikoaren azterketetako notak haztatzeko parametroak

Parametro hauek, UPV/EHU, jarraian agertzen diren koadroetan zehaztutakoak izango dira.

## GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOETATIK SARTZEA

---

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 44, 53 eta 65. artikuluetan zehaztutako Lanbide Heziketako goi mailako teknikari titulua, diseinu eta arte plastikoetako goi mailako teknikari titulua, goi mailako kirol teknikari titulua edo baliokidea dutenek ez dute sarrera-probarik egin beharko unibertsitateko graduko ikasketa ofiziale-tara sartzeko.

### Onarpen nota

Maiatzaren 7ko 558/2010 Errege Dekretuaren 7.artikuluaren araber, eskaera kopurua plaza kopuru baino handiagoa den graduko unibertsitate ikasketa ofizialetan sartu ahal izateko, lehen aipatu diren tituluak dituzten ikasleak fase espezifikora aurkeztu ahal dira onarpen nota hobetzeko. Fase espezifikoko hori honako irizpide hauen arabera izango da:

- Ariketetan ebaluatuko diren gaien edukia aurrerago argitaratuko da.
- Ikasle bakoitzak gehienez lau ariketa egin ahal ditu, berak aukeratzen dituenak.
- Ariketa bakoitzean bi aukera egongo dira eta ikasleak bat aukeratu beharko du.
- Ariketa bakoitza Otik 10 puntura bitartean kalifikatuko da, bi zifra dezimalekin. Azterketa gainditzeko gutxienez 5 puntuko kalifikazioa lortu behar da.
- Unibertsitate publikoek kasuan kasuko onarpen notaren arabera esleituko dituzte plazak. Nota hori behean agertzen den formularen arabera kalkulatu da eta hiru zifra dezimal izango ditu.

$$\text{Onarpen-nota} = \text{ZBN} + a \times \text{M1} + b \times \text{M2}$$

ZBN = Heziketa zikloko batez besteko nota.

M1, M2 = Fase espezifikoko gainditutako proben artetik onarpen nota onena ematen duten kalifikazioak, gehienez bi.

a, b = Fase espezifikoko azterketako notak haztatzeko parametroak.

Parametro hauek, UPV/EHU, jarraian agertzen diren koadroetan zehaztutakoak izango dira:

BATXILERGOKO BIGARREN MAILAKO MODALITATEKO  
IRAKASGAIK JAKINTZA ADARREKIN NOLA LOTZEN DIREN

ARTEAK ETA GIZA ZIENTZIAK

0,1

0,2

GRADUAK	Analisi musikala II	Ikus-entzunezko Kultura	Marraketa Artistikoa II	Marraketa Teknikoa II	Diseinua	Enpresaren Ekonomia	Geografia	Grekoa II	Musikaren eta Dantzaren Historia	Artearen Historia	Latina II	Literatura Unibertsala	Giza Zientzietan Aplikaturako Matematika II
Artea													
Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzea													
Sorkuntza eta Diseinua													
Ingeles Ikasketak													
Euskal Ikasketak													
Filosofia													
Historia													
Artearen Historia													
Filologia													
Itzulpen-gintza eta Interpretazioa													

**ZIENTZIAK****0,1****0,2**

GRADUAK	Biologia	Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak	Elektroteknia	Fisika	Matematika II	Kimika	Industria Teknologia II
Biologia	█				█	█	
Biokimika eta Biologia Molekularra					█	█	
Bioteknologia	█				█	█	
Elikagaien Zientzia eta Teknologia				█	█	█	
Ingurumen Zientziak	█	█		█	█	█	
Fisika				█	█	█	
Geologia				█	█	█	
Matematika				█	█		
Kimika				█	█	█	

**OSASUN ZIENTZIAK****0,1****0,2**

GRADUAK	Biologia	Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak	Fisika	Matematika II	Kimika
Erizaintza	█				█
Farmazia	█			█	█
Fisioterapia*	█		█		
Medikuntza	█				█
Giza Elikadura eta Dietetika	█			█	
Odontologia	█				█
Psikologia	█			█	

\* Onartzeke.



# GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIAK

0,1

0,2

## GRADUAK

	Analisi Musikala II	Biologia	Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak	Ikus-entzuzeko Kultura	Marraketa Artistikoa II	Marraketa Teknikoa II	Discinua	Enpresaren Ekonomia	Fisika	Geografia	Grekoa II	Musikaren eta Dantzaren Historia	Artearen Historia	Latina II	Literatura Unibertsala	Matematika II	Giza Zientzei Aplikatuako Matematika II	Kimika
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza																		
Gizarte Antropologia																		
Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa																		
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak																		
Ikus-entzuzeko Komunikazioa																		
Kriminologia																		
Zuzenbidea																		
Ekonomia																		
Haur Hezkuntza																		
Lehen Hezkuntza																		
Gizarte Hezkuntza																		
Finantzak eta Aseguruak																		
Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa																		
Geografia eta Lurralde Antolakuntza																		
Negozioen Kudeaketa																		
Marketina																		
Pedagogia																		
Kazetaritza																		
Publizitatea eta Harreman Publikoak																		
Lan Harreman eta Giza Baliabideak																		
Soziologia																		
Gizarte Langintza																		

# INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA

0,1

0,2

## GRADUAK

	Biologia	Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak	Marrazketa Teknikoa II	Disainua	Enpresaren Ekonomia	Elektroteknia	Fisika	Matematika II	Kimika	Industria-teknologia II
Arkitektura			0,1				0,2	0,2		
Ingurumen Ingeniaritza.			0,1						0,2	
Ingeniaritza Zibila			0,1				0,2	0,2		
Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniaritza			0,1						0,2	
Ingeniaritza Elektrikoa			0,1		0,1	0,1	0,1	0,1		0,1
Ingeniaritza Elektronikoa			0,1		0,1	0,1	0,1	0,1		0,1
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza			0,1		0,1	0,1	0,1	0,1		0,1
Eraikuntza Ingeniaritza			0,1	0,1						
Energia Berriztagarrietan Ingeniaritza*			0,1			0,1	0,1	0,1		0,1
Geomatika eta Topografia Ingeniaritza	0,1						0,1	0,1		
Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza			0,1				0,1	0,1		
Industria Teknologiaren Ingeniaritza			0,1				0,1	0,1		
Informatikaren Ingeniaritza								0,1		
Kudeaketaren eta Inf. Sist. Informatikaren Ing.					0,1			0,1		
Itsas Ingeniaritza										
Ingeniaritza Mekanikoa			0,1		0,1	0,1	0,1	0,1		0,1
Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioa										
Ingeniaritza Kimikoa						0,1	0,1	0,1		
Industria Kimikaren Ingeniaritza			0,1		0,1	0,1	0,1	0,1		0,1
Telekomunikazioaren Ingeniaritza Teknikoa			0,1				0,1	0,1		0,1

\* Onartzeke.

## 25 URTETIK GORAKOAK UNIBERTSITATERA SARTZEKO BIDEA

---

1892/2008 Errege Dekretuak, graduko unibertsitate-ikasketa ofizialetan sartzeko baldintzak arautzen dituenak, 25 urtetik gorakoentzako sarrera-proba aurreikusten du bere V. kapituluan. Proba hori Errege Dekretura egokitzeko, UPV/EHUK 25 urtetik gorakoak unibertsitatera sartzeko proben arautegi berria onartu zuen, eta 2009ko irailaren 14ko *EHA*An eman zen argitara.

### **Probarako matrikula**

Unibertsitatean sartzeko eskatzen den titulazioa ez duten pertsonak egin dezakete matrikula, baldin eta 25 urteak 2011eko urriaren 1a baino lehenago egiten badituzte.

Izena 2011ko otsailaren 14tik 18ra eman ahal izango da, campusetako errektoreordetzetan, Sarbide Bulegoan eta [www.sarrera.ehu.es](http://www.sarrera.ehu.es) helbidean.

### **Aurkeztu beharreko dokumentuak**

1. Eskaria behar bezala bete, hartarako dagoen inprimakian edo web orrian.
2. NANaren, pasaportearen edo adina frogatzen duen beste dokumentu ofizial baten jatorrizkoa eta fotokopia, biok erkatzeko
3. Tasen murrizpena edo salbuespena izateko eskubidea frogatzen duen indarreko dokumentuaren fotokopia.
4. Interesatuaren zinpeko aitopena, dioena interesatua ez dela matrikulatu proba hauetarako beste unibertsitatearen batean eta ez daukala titulazio edo ikasketarik unibertsitatera sartzeko bidea ematen dionik.

### **Deialdiak**

Urtero unibertsitateak sarrera proba bat antolatuko du 25 urtetik gorakoentzat; proba behin gaingiduta, interesatuak aukera izango du hurrengo deialdietan berriro aurkezteko, nota igo nahi balu titulazio jakin batera sartzeko. Halakoetan unibertsitateak azken deialdian lortutako kalifikazioa hartuko du kontutan, baldin eta aurrekoa baino hobea bada eta proba unibertsitate berean egindakoa bada.

Proba ezin izango da egin unibertsitate batean baino gehiagotan ikasturte berbererako. Hala eginez gero, proba guztiak automatikoki baliogabetuko dira.

## Probaren egitura orokorra

Probak bi zati izango ditu: orokorra eta espezifikoa.

### Zati orokorra

Helburua da ikustea ikaslea egokia den unibertsitateko ikasketak egiteko eta horretarako heldutasun nahikoa daukan; bestalde, arrazoi-tzeko eta adierazpen idatzirako daukan gaitasuna ere neurtzea du xede. Lau azterketa izango ditu, arlo hauetako bakoitzerako bat:

- a) **Gaur egungo gai bati buruzko testu iruzkina edo idazlana**
- b) **Gaztelania**
- c) **Atzerriko hizkuntza**, honako hauen artetik aukeratzeko: alemana, frantsesa, ingelesa, italiarra edo portugesa
- d) **Euskara**. Euskarako azterketa ez egiteko aukera izango du ikasleak, baldin eta behar bezala egiaztatutako aparteko arrazoiren bat badauka. Nagusiak Unibertsitatara Sartzeko Probak Antolatzeko Batzordeak ebatziko ditu eskariak eta, eskuordetzaz, batzordeburuak edo UPV/EHUko Unibertsitatara Sartzeko Probetako zuzendariak.

### Zati espezifikoa

Probako zati espezifikoa helburua da neurtzea ikaslearen trebetasuna, gaitasuna eta ahalmena jakintza-adar bakoitzari lotutako unibertsitateko ikasketak ondo burutzeko.

Zati espezifikokoak bost aukera ditu, bakoitza graduko ikasketa ofizialen bost jakintza-adarretako bati lotua. Zati honetan ikasleak bi gai aukeratuko ditu adar bakoitzetik. Hona jakintza-adarrak eta bakoitzaren gaiak:

- A) **Arteak eta Giza Zientziak:**  
Irakasgaiak: Artearen Historia, Historia, Marrazketa Artistikoa eta Filosofiaren Historia.
- B) **Zientziak:**  
Irakasgaiak: Matematika, Fisika, Kimika eta Biologia.
- C) **Osasun Zientziak:**  
Irakasgaiak: Gizarte eta Osasun Zientzietarako Matematika, Fisika, Kimika eta Biologia.

**D) Gizarte eta Lege Zientziak:**

Irakasgaiak: Gizarte Zientziei eta Osasun Zientziei Aplikaturiko Matematika, Enpresa Ekonomia, Historia eta Geografia.

**E) Ingeniaritza eta Arkitektura:**

Irakasgaiak: Matematika, Fisika, Kimika eta Marrazketa Teknikoa.

Zati espezifikotan ikasleak aukeratuko du zein arlotan egin gura duen azterketa, baina kontuan izan beharko du unibertsitatean sartzera-koan aukera horrekin lotura duten ikasketetarako izango duela lehentasuna.

Azterketa arlo bakar batean egin ahal izango du, baina, aukeratu-tako gaiak arlo batekoak baino gehiagokoak badira, arlo bakoitzak ematen dituen lehentasunak izango du ikasleak.

Izena ematen duenean adieraziko du ikasleak zein irakasgairen azterketa egingo duen.

Azterketak euskaraz nahiz gaztelaniaz egin ahal izango ditu.

## **Kalifikazioa**

Gai bakoitzari zerotik hamar puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio.

Azken kalifikazioa azterketa guztien kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da.

Unibertsitatean sartzeko proba osoa gainditzeko, gutxienez bost bat lortu beharko da azken kalifikazioan, eta batez bestekoa egiteko beharrezkoa izango da zati bakoitzean (orokorrean eta espezifikotan) gutxienez lau bat ateratzea.

Ikasleak proba osora aurkeztu ahal izango dira ondorengo deialditan, kalifikazioa hobetzeko. Deialdi berrian lortutako kalifikazioa hartuko da kontuan, baldin eta aurreko deialdian lortutako kalifikazioa baino altuagoa bada.

## **Erreklamazioa**

Ikasleak azterketak berrikusteko eskaria egin diezairoke errektoreari idatzi arrazoitu baten bidez; horretarako bost egun balioduneko epea izango du kalifikazioak argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

## 45 URTETIK GORAKOAK UNIBERTSITATERA SARTZEKO BIDEA

---

1892/2008 Errege Dekretuak, graduko unibertsitate-ikasketa ofizialan sartzeko baldintzak arautzen dituenak, 45 urtetik gorakoentzako sarrera-proba aurreikusten du bere V. kapituluan. Proba hori Errege Dekretura egokitzeko, UPV/EHUK 45 urtetik gorakoak unibertsitatera sartzeko proben arautegi berria onartu zuen, eta 2009ko irailaren 14ko EHAA eman zen argitara.

### Azterketarako matrikula

Matrikulatu ahal izango dira **beste bide batetik unibertsitatean sartzeko titulazio akademikorik ez daukaten 45 urtetik gorako pertsonak**, proba egiten den urte naturaleko urriaren 1a baino lehen bete badituzte urteak.

Izena 2011ko otsailaren 14tik 18ra eman ahal izango da, campuse-tako errektoreordetzetan, Sarbide Bulegoan eta [www.sarrera.ehu.es](http://www.sarrera.ehu.es) helbidean.

### Aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Eskaria behar bezala bete, hartarako dagoen inprimakian edo web orrian.
2. NANaren, pasaportearen edo adina frogatzen duen beste dokumentu ofizial baten jatorrizkoa eta fotokopia, biok erkatzeko.
3. Tasen murrizpena edo salbuespena izateko eskubidea frogatzen duen indarreko dokumentuaren fotokopia.
4. Interesatuaren zinpeko aitortpena, dioena interesatua ez dela matrikulatu proba hauetarako beste unibertsitate batean eta ez daukala titulazio edo ikasketarik unibertsitatera sartzeko bidea ematen dionik.

### Probaren egitura orokorra

Probak bi zati ditu.

### *Lehenengo zatia*

Zati honen helburua da ikustea ea ikaslea egokia den unibertsitateko ikasketak egiteko, horretarako behar den heldutasuna daukan eta arrazoitzeko eta adierazpen idatzirako gaitasuna duen. Hiru azterketa ditu:

- a) **Testu-iruzkina**
- b) **Gaztelania**
- c) **Euskara.** Euskarako azterketa ez egiteko aukera izango du ikasleak, baldin eta behar bezala egiaztatutako aparteko arrazoiren bat badauka. Nagusiak Unibertsitatera Sartzeko Probak Antolatzeko Batzordeak ebatziko ditu eskariak eta, eskuordetzaz, batzordeburuak edo UPV/EHUko Unibertsitatera Sartzeko Probetako zuzendariak.

Azterketak 25 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko probetako berak izango dira, egun eta leku berean egingo dira eta epaimahaiak ere berak izango dira.

### *Bigarren zatia*

**Elkarrizketa**, interesatuak kasuan kasuko ikasketak egiteko dituen ezaugarri eta ezaugutzak balioesteko. Elkarrizketa pertsona adituek egingo dute eta emaitza Gai edo Ez Gai izango da. Elkarrizketa egin ahal izateko nahitaezkoa da lehenengo zatia gaindituta izatea.

### **Kalifikazioa**

Lehenengo zatiko azterketa bakoitzari zerotik hamarrera arteko puntuazioa emango zaio.

Azken kalifikazioa lehenengo zatian lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da.

Unibertsitatean sartzeko proba osoa gainditzeko, lehenengo zatian bost bat lortu beharko da gutxienez, eta batez bestekoa egiteko beharrezkoa izango da azterketa guztietan gutxienez lau bat ateratzea, eta elkarrizketan Gai.

### **Erreklamazioa**

Ikasleak azterketak berrikusteko eskaria egin diezairoke errektoreari idatzi arrazoitu baten bidez; horretarako bost egun balioduneko epea izango du kalifikazioak argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

## LAN ESPERIENTZIA EGIAZTATUZ SARTZEKO BIDEA

---

1892/2008 Errege Dekretuak, graduko unibertsitate-ikasketa ofizialtan sartzeko baldintzak arautzen dituenak, lan esperientzia egiaztatuz sartzeko bidea aurreikusten du bere V. kapituluan. Errege Dekretua egokitzeko, UPV/EHUK arautegi berria onartu zuen, eta 2009ko irailaren 14ko EHAAn eman zen argitara.

Unibertsitatean bide honetatik sartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira: interesatuak egin gura dituen ikasketen arloan lan-esperientzia izatea, unibertsitatera beste bide batetik sartzeko aukera ematen dion titulaziorik ez izatea eta 40 urte beteak izatea unibertsitatean sartzeko eskaria egingo duen urteko urriaren 1a baino lehen.

Bide honek ikasketa konkretuetan sartzeko era ematen du. Izena 2011ko otsailaren 14tik 18ra eman ahal izango da, campusetako errektoreordetzetan eta Sarbide Bulegoan.

Eskariari buruzko erabakia ikastegiko dekanoko edo zuzendariak hartuko du —errektoreak horretarako eskumenak eskuordetuta— ikastegiko Akademia Antolakuntzako Batzordeak zehaztutako irizpide objektiboekin jarraituz. Batzorde horrek zehaztuko du zein esperientzia mota eskatuko den ikasketa bakoitzerako, nola egiaztatu beharko den esperientzia hori, nola balioetsiko den eta zeren arabera erabakiko den eskatzaileen hurrenkerara. **Edozelan ere, interesatuak elkarrizketa egin beharko du.**

Lan-esperientziaren egindako balorazioak betiko balioko du unibertsitateko ikasketa jakin horietarako.

Ikastegiaren balorazioa eta ikaslearen espedientearen Sarbide Bulegora bidaliko ditu, unibertsitatean sartzeko prozedura orokorrari ekiteko.

### Aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Eskaria behar bezala bete, hartarako dagoen inprimakian.
2. NANaren, pasaportearen edo adina frogatzen duen beste dokumentu ofizial baten jatorrizkoa eta fotokopia, biok erkatzeko.
3. Tasen murrizpena edo salbuespena izateko eskubidea frogatzen duen indarreko dokumentuaren fotokopia.
4. Interesatuaren zinpeko aitortzea, dioena interesatua ez daukala titulazio edo ikasketarik unibertsitatera sartzeko bidea ematen dionik.
5. Curriculum vitae, agiriarekin batera.

Bide honetatik ikasketa batzuetan bakarrik dago aukera sartzeko, hau da, ikasketa-planean hala jasota eta araututa daukaten hurrengo graduetan:



GRADUAK	IKASTEGIAK
Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioko Gradua Itsas Ingeniaritzako Gradua	Nautika eta Itsasontzi-Makineria G.E.T.
Kudeaketaren eta Informazio Sistema Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko U.E. Gasteizko Ingeniaritzako U.E. Informatika Fakultatea
Industria Elektronikaren eta Automatik. Ingeniaritzako Gradua Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	Gasteizko Ingeniaritzako U.E. Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko U.E. Donostiako U.E. Politeknikoa Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko U.E.
Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	Gasteizko Ingeniaritzako U.E. Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko U.E. Donostiako U.E. Politeknikoa
Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua*	Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko U.E.
Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako Gradua	Gasteizko Ingeniaritzako U.E.
Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua	Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko U.E.
Eraikuntza Ingeniaritzako Gradua	Donostiako U.E. Politeknikoa
Ingeniaritza Zibileko Gradua	Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko U. E. Donostiako U.E. Politeknikoa
Ingeniaritza Kimikoko Gradua Geologiako Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Kimikako Gradua	Kimika Zientzien Fakultatea Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Giza Elikadura eta Dietetikako Gradua Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Farmaziako Gradua	Farmazia Fakultatea
Erizaintzako Gradua	Donostiako Erizaintzako U.E. Leioako Erizaintzako U.E.

\* Onartzeke.

GRADUAK	IKASTEGIAK
Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Gradua	Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea Donostiako Enpresa Ikasketen U.E. Gasteizko Enpresa Ikasketen U.E.
Negozioen Kudeaketako Gradua	Bilboko Enpresa Ikasketen U.E.
Ekonomiako Gradua Finantzak eta Aseguruetakoko Gradua Zerga Sistema eta Administrazio Publikoko Gradua Marketineko Gradua	Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea
Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua Kazetaritzako Gradua Publizitatea eta Harreman Publikoetako Gradua Soziologiako Gradua	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Zuzenbideko Gradua	Zuzenbide Fakultatea Zuzenbide Fakultatea - Bizkaiko atala
Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua	Lan Harremanen U.E.
Kriminologiako Gradua	Zuzenbide Fakultatea
Arteko Gradua Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberri- tzeari buruzko Gradua Sorkuntza eta Diseinuko Gradua	Arte Ederren Fakultatea
Haur Hezkuntzako Gradua Lehen Hezkuntzako Gradua	Bilboko Irakasleen U.E. Donostiako Irakasleen U.E. Gasteizko Irakasleen U.E.
Gizarte Hezkuntzako Gradua	Bilboko Irakasleen U.E. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Gizarte Langintzako Gradua	Gasteizko Gizarte Langintzako U.E.
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzie- tako Gradua	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zien- tzien Fakultatea
Filologiako Gradua Ingeles Ikasketetako Gradua Euskal Ikasketetako Gradua Geografia eta Lurralde Antolakuntzako Gra- dua Historiako Gradua Artearen Historiako Gradua Itzulpenintza eta Interpretazioko Gradua	Letren Fakultatea

## ATZERRIAN IKASI DUTEN IKASLEAK SARTZEKO BIDEA

---

Atzerriko hezkuntza-sistematn ikasi duten eta UPV/EHUko titulazio ofizialen batean sartu nahi duten ikasleek Espainiako unibertsitateetan sartzeko eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte eta eskaria egin unibertsitatean sartzeko arautegi orokorrari jarraituz.

a) Unibertsitate mailako ikasketarik ez dutenek:

— Unibertsitate aurreko ikasketak Europar Batasunekoak diren edo nazioarteko hitzarmenak dituzten herrialdeetan egin dituzten ikasleei dagokienez:

- Azaroaren 14ko 1892/2008 EDk (20. art.) arautzen du nola sartzten diren Espainiako unibertsitateetan Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 38.5. artikulua eragiten dien beste hezkuntza-sistema batzuetatik etorritako ikasleak .
- Unibertsitatean sartzeko prozedura Urrutiko Hezkuntza Unibertsitate Nazionalak (UHUN) gauzatuko du. Era-kunde horrek egiaztatuko du eskatzaileek unibertsitateara sartzeko baldintzak betetzen dituzten ikasketak egin dituzten herrialdean. UHUNek egiaztatzen badu ikasleak betetzen dituela unibertsitatean sartzeko bideen, noten eta abarren inguruko baldintzak, agiri bat emango dio ikasle horri, unibertsitatean sartzeko izena eman dezan eta gero matrícula egin.
- Baldintzak betetzen dituztela egiaztatuz gero, unibertsitateara sartzeko probaren zati espezifikora aurkeztu ahal izango dira UHUNen edo beste unibertsitate publiko batean, onarpen-nota hobetzeko.

$$\text{Onarpen nota} = \text{egiaztagiriko nota} + a \times M1 + b \times M2$$

M1, M2 = Fase espezifikoa gainditutako gaietako bi kalifikazio onenak

a, b = Fase espezifikoko azterketetako notak haztatzeko parametroak

Egiaztagirian kalifikazioa ageri ez bada, onarpen-nota kalkulatzeko 5 puntuko kalifikazioa erabiliko da.

- Aurreko paragrafoan aipatu ez diren eta sarrera-proba behar duten unibertsitate aurreko ikasketak dituztenek:
    - Beren tituluak Espainiako Batxilergo tituluarekin homologatzea eskatu beharko dute.
    - UHUNEk antolatutako unibertsitatean sartzeko probak gainditu beharko dituzte.
    - Unibertsitatean izena emateko sistemen bidez plaza eskatu beharko dute.
  - Sarrera zuzena ematen duten unibertsitate aurreko ikasketak eginda dituztenek:
    - Atzerrian egindako Lanbide Heziketako ikasketak Espainiako titulu baliokidearekin baliozkotu beharko dituzte.
    - Unibertsitatean izena emateko sistemen bidez plaza eskatu beharko dute.
- b) Ikasketa ofizialak beste herrialde batean hasita izanda, hemen jarraitu nahi dutenek:
- Iraileko bigarren hamabostaldian plaza eskatu beharko dute matrikula egin nahi duten ikastegiko idazkaritzan.
  - Leku-aldaketarako eskaria egin arren, prozesu orokorreko beste bideetatik ere eman dezakete izena.
- c) Atzerriko unibertsitateren batean lortutako unibertsitate mailako titulu ofiziala dutenek:
- Atzerriko unibertsitate-titulua Espainiako baliokidearekin homologatu beharko dute.
  - Unibertsitatean izena emateko sistemen bidez plaza eskatu beharko dute.

**3**

**UPV/EHU<sub>n</sub> SARTZEKO PROZEDURA**

---



Azaroaren 14ko 1892/2008 EDren bidez Espainiako unibertsitate publikoetan ikasleak graduko unibertsitate-ikasketa ofizialetara sartzeko baldintzak eta ikasleak onartzeko prozedurak arautu ziren. Dekretu horren arabera, Euskal Herriko Unibertsitatean ikasten hasi nahi duten ikasleek baldintza akademikoak bete beharko dituzte eta izena emateko eskaria aurkeztu horretarako ezarrita dauden epeetan, baldintza akademikoak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentuekin batera (ikus hurrengo atala). Izena emateko eskari bakarrean ikasleak gehienez 8 titulazio ipiniko ditu bere lehentasunen arabera sailkatuak, eta adieraziko du eskaria zeintzuk sarbidedatik aztertzea nahi duen.

## SARBIDE MOTAK ETA DOKUMENTAZIOA

UPV/EHUn sartzeko eskaria egin nahi duten ikasleek aukera hauekoren bat erabili beharko dute:

- Batxilergo titulua edo baliokidea duten eta sarrera-proba egin duten ikasleen bidea.
- Unibertsitateko tituludunen bidea
- Europar Batasuneko edo Espainiarekin nazioarteko hitzarmena duten herrialdeetakoak izan eta euren herrialdeetan unibertsitate sartzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleen bidea.
- Lanbide heziketako goi mailako teknikari titulua, diseinu eta arte plastikoetako goi mailako teknikari titulua edo goi mailako kirol teknikari titulua duten ikasleen bidea.
- 25 urtetik gorakoentzako sarrera-proba gainditu duten ikasleen bidea.
- 45 urtetik gorakoentzako sarrera-proba gainditu duten ikasleen bidea.
- Lan-esperientzia egiazta dezakeen ikasleen bidea.

**Sarrera eskaera internet bidez egin behar da [www.sarrera.ehu.es](http://www.sarrera.ehu.es) web orrialdean, baina eskaera behin-behinekoa izango da Sarbide Bulegoan ondorengo dokumentazioa behar bezala konpultsatuta jaso arte:**

- a) NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- b) Eskatutako titulazioak egiteko era ematen duten ikasketen ziurtagiria, kasuan kasuko sarbidearen arabera: Hautaprobetako txartela, Lanbide Heziketako ikasketen ziurtagiria, unibertsitateko titulua (UPV/EHUko titulatuak izan ezik).
- c) Ikasle ezinduentzat eta goi mailako kirolarientzat gordetako plazak eskatu nahi dituzten ikasleek ezaugarri hori frogatzen duen dokumentua aurkeztu behar dute, kasuan kasuko administrazioak emana.

## GORDETAKO PLAZAK

---

1892/2008 EDko 48. artikuluari jarraiki, unibertsitateak plaza guztiak banatu behar ditu talde orokorraren eta kopuru bat gorde behar zaien taldeen artean. Gordetzen diren plazetatik deialdi bakoitzean bete barik geratzen direnak multzo orokorrera pasatuko. Hona hemen gorde behar diren kupoak:

- 25 urtetik gorakoentzako proba eginez sartuko diren ikasleentzat: gutxienez % 2.
- 45 urtetik gorakoentzako proba eginez eta 40 urtetik gora izanda lan-esperientzia egiaztatuz sartuko diren ikasleentzat: % 1etik % 3a.
- % 33ko ezintasun-maila edo handiagoa duten ikasleentzat: % 5.
- Goi mailako eta errendimendu handiko kirolarientzat: gutxienez % 3.
- Unibertsitateko titulazioa edo baliokidea dutenentzat: % 1etik % 3ra.

Kupo bat baino gehiagoren bitartez sartzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleek aukera horiek baliatu ahal izango dituzte batera.

## IZENA EMATEKO PROZESUA ETA ONARPENA

---

10/11 ikasturte honetan batxilergoa edo Goi Mailako Prestakuntza Zikloak Euskal Barrutian egin dituzten ikasleek bigarren hezkuntzako ikastetxeetan egin beharko dute UPV/EHUn sartzeko eskaria (ikusitramiteen egutegia). Gehienez ere 8 titulazio aukera daitezke. Hautapoben emaitzak jakinda, Euskal Barrutiko batxilergoko ikasleek berretsi egin beharko dute izen ematea, eta nahi izanez gero, hasieran egindako aukerak aldatu ahal izango dituzte. Berrespen hori Internetez egin daiteke. **Eskaria berretsi ezean** unibertsitateak ez du eskaria aintzat hartuko (ikusitramiteen egutegia). Gainerako ikasleek dagokien dokumentazioarekin aurkeztu beharko dute sartzeko eskaria, tramiteen egutegian ezarritako egunetan.

**Hautatutako 8 aukerak eta haien ordena funtsezkoa da**, eta, onartze-prozedura hasi ondoren, ezingo da aldatu.

Onarpen prozedura ondorengoa da:

- Ikasleak onarpen-notaren arabera ordenatzen dira eskatutako gradu bakoitzean.



- Onarpen-zerrenda bat argitaratzen da eta zerrenda horretan ikasleari plaza bakarra esleitzen zaio gradu bakarrean.
- Zerrenda argitaratzearekin batera, ikasleari hitzordua jartzen zaio matrikula dadin.
- Une horretarik aurrera, ikaslearen eskaera honela geratuko da:
  - itxaron zerrendan geratuko da ikasleari esleitu zaion aukeraren aurretik jarritako aukeratan.
  - baztertuta geratuko da ondorengo aukeratatik.
- Ikasle bat ikasketa jakin batzuetan onartu badute eta ikasleak ikasketa horiek egin nahi baditu, adierazten zaion egunean egin behar du matrikula. Ez badu matrikula egiten, plazari uko egiten diola ulertzen da. Itxaron-zerrendetatik ez dute inolaz ere kanporatuko.
- Lehenengo matrikula-aldia bukatutakoan, hutsik dauden plazak errekuperatzen dira, itxaron-zerrendan dauden ikasleei esleitzen zaizkie eta onartuen zerrenda berri bat argitaratzen da.
- Eta horrela, plaza guztiak esleitu arte.

Plazen adjudikazioa onarpen notaren arabera egiten da. Batxilergotik datozen hainbat ikasleren artean **berdinketa** badago, lehentasuna izango dute sarrera probako fase nagusiko laugarren ariketan egin nahi duten irakaskuntzako ezagutza adarrarekin zerikusia duen gai bat lantzen duten ikasleek. Lanbide Heziketatik datozen ikasleei dagokienez, lehentasuna egindako tituluaren ezagutza adarrarekiko adskripzioaren arabera izango da.

### **ARABAKO CAMPUSA**

Izardui komandantea, 2  
Gasteiz

### **GIPUZKOAKO CAMPUSA**

Ignacio M.<sup>a</sup> Barriola eraikina - Elhuyar plaza, 1  
Donostia

### **BIZKAIKO CAMPUSA**

- Ikasleen Atala (Sarbide Bulegoa)
  - I. Ikasgelategia. Beheko solairua.
  - Leioa
- Larrako Etxea
  - Agirre lehendakaria, 83
  - 48015 Bilbo

## 2011/12 IK ASTURTEAN UPV/EHUh SARTZEKO EGIN BEHARREKO TRAMITEEN EGUTEGIA (1)

	TALDEA	IZENA EMATEA	IZEN EMATEA BERRESTEA	ONARTUEN I. ZERRENDA ARGITARATZEA	MATRIKULA EPEAREN HASIERA	
BATXILERGOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Hautaprobak 2010ean egingo dituzten EAEnko Batxilergoko ikasleak</li> <li>— Ikasleak:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hautaprobak aurreko urteetan gainditu dituztenak</li> <li>• Beste erkidego batzuetan gainditu dituztenak.</li> <li>• Unibertsitateko sarbidea ematen duten atzerriko ikasketak dituztenak (2/2006 HLO, maitezaren 3koa)</li> </ul> </li> <li>— 2010/11 ikasturtean LH egin duten EAEnko ikasleak.</li> <li>— Beste erkidego batzuetako LHko ikasleak edo aurreko urteetan LH egin duten EAEnko ikasleak.</li> <li>— Azterketa 2011ean egingo duten 25 eta 45 urtetik gorako ikasleak</li> <li>— Azterketa aurreko ikasturteetan gainditu duten 25 eta 45 urtetik gorako ikasleak.</li> <li>— Titulatuak</li> <li>— 2. Zikloko ikasketetako sartzeko bidea</li> <li>— Lan-esperientzia egiaztatuz sartzeko bidea</li> </ul>	Martxoak 25 (Hautaprobak gainditu eta gero izen ematea berretsi egin behar da)	Ohiko deialdia: ekainaren 20etik 24ra  Ezohiko deialdia: Uztailaren 18tik 22ra	I. FASEA  uztaialak 16	I. FASEA  uztaialak 18	
		Martxoak 25	Ekainaren 27tik uztaialaren 1era			
LH		Martxoak 25				
>25 eta <45		Ekainaren 27tik uztaialaren 1era				
		Ostailaren 14tik 18ra				
BESTERIK		Ekainaren 27tik uztaialaren 1era				
		Ekainaren 27tik uztaialaren 1era				
		Ostailaren 14tik 18ra				

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa.

(1) Taula honetako datuak Akademi Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak onartu behar ditu oraindik.

# AURREKO IKASTURTEETAKO PLAZA KOPURUAK ETA GUTXIENENKO NOTAK

ARABAKO CAMPUSA		2010/11						
		Plazen kopurua	Kupo orokorra Batxilergoa + LH	Tituludunak plazen % 2	25-G plazen % 2	45-G plazen % 1	Lan-esperientzia plazen % 1	
Artearen Historiako Gradua	80	*	62/11 05,500	*	*	*	92/11 05,000	
Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua	40	*	*	*	*	*	*	
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	140	62/11 08,323	*	*	*	*	92/11 05,830	
Euskal Ikasketetako Gradua	80	*	42/11 07,600	*	*	*	*	
Farmaziako Gradua	140	92/11 06,614	92/11 05,500	*	*	*	*	
Filologiako Gradua	100	*	*	*	*	*	*	
Geografiako eta Lurralde Antolaketarako Gradua	60	*	*	*	*	*	*	
Geomatika eta Topografia Ingeniarietako Gradua	60	*	92/11 07,420	*	*	*	*	
Giza Elikadura eta Dietetikako Gradua	60	62/11 06,286	92/11 08,068	*	*	*	*	
Gizarte Langintzako Gradua	123	61/11 06,206	*	92/10 08,167	92/11 07,750	92/11 08,300		
Haur Hezkuntzako Gradua	125	92/11 07,112	92/11 06,818	92/11 05,997	92/11 07,500	*		
Historiako Gradua	120	61/11 06,806	*	*	*	*		
Industria Elektronikaren eta Automatik. Ingeniarietako Gradua	60	*	*	*	*	*		
Industria Kimikaren Ingeniarietako Gradua	40	*	*	*	*	*		
Ingeles Ikasketetako Gradua	120	92/10 05,900	72/11 07,500	92/10 08,313	*	*		
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	60	*	*	92/11 06,400	*	*		
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	130	*	*	*	*	*		
Ingunumen Zientzietako Gradua	70	92/11 07,920	62/11 07,680	*	*	*		
Izulpengintza eta Interpretazioako Gradua	60	82/11 10,448	*	82/11 05,392	*	*		
Jarduern Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua	100	92/11 09,016	92/11 07,015	*	*	*		
Kudeaketaren eta Inform. Sist. Informat. Ingeniarietako Gradua	60	*	92/11 06,987	*	*	*		
Lehen Hezkuntzako Gradua	150	92/11 07,010	92/11 07,200	92/11 06,388	72/11 05,250	*		

\* Beterik gabeko plazarak.  
 - Surbiderik gabe.

GIPUZKOAKO CAMPUSA		2010/11						Lan-esperientzia plazzen % 1
Plazzen kopurua	Kupo orokorra Batzirgoan + LH	Tituludunak plazzen % 2	25-G plazzen % 2	45-G plazzen % 1				
Arkiteturako Gradua	6/11 05,758	92/11 05,320	*	*	*	—		
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	6/11 05,662	*	*	*	*	*		
Eraikuntza Ingeniaritzako Gradua	92/11 08,427	92/11 07,075	92/11 06,180	*	*	*		
Erizaintzako Gradua	92/11 09,818	92/11 07,800	92/11 06,797	92/11 06,200	92/11 05,000	92/11 08,000	—	
Filosofiak Gradua	6/11 05,446	62/11 08,120	92/11 07,234	92/11 05,000	92/11 08,400	—		
Gizarte Antropologiako Gradua	*	*	92/11 06,309	92/11 07,000	92/11 08,400	—		
Gizarte Hezkuntzako Gradua	6/11 05,396	*	92/11 06,488	92/11 07,000	92/11 08,400	—		
Haur Hezkuntzako Gradua	92/11 08,722	92/11 08,199	92/11 06,425	92/11 08,300				
Industria Electromikaren eta Automatik. Ingeniaritzako Gradua	1/30 *	*	*	*	*	*		
Industria Electron. eta Automat. Ingeniaritzako Gradua - EIBAR	*	*	*	*	*	*		
Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua	*	92/11 07,694	*	*	*	*		
Informatikaren Ingenieritzako Gradua	*	*	*	*	*	—		
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	*	*	*	*	*	*		
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	1/30 6/11 06,406	*	*	*	*	*		
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua - EIBAR	*	*	*	*	*	*		
Ingeniaritza Zibilako Gradua	92/11 08,428	92/11 07,010	*	*	*	*		
Kimikako Gradua	*	*	*	*	*	*		
Kriminologiako Gradua	92/11 05,478	92/11 06,893	92/10 05,363	92/11 06,000				
Kudeaketaren eta Inform. Sist. Informat. Ingeniaritzako Gradua	*	*	*	*				
Lehen Hezkuntzako Gradua	92/11 07,788	92/11 07,789	92/11 06,600	92/11 06,750	92/11 05,300	—		
Pedagogiako Gradua	5/11 05,640	92/11 07,960	92/11 06,488	92/11 07,500				
Psikologiako Gradua	92/11 05,588	92/11 07,488	92/10 06,592	92/11 07,500				
Zuzenbideko Gradua	*	*	*	*	*	*		

\* Beterik gabeko plaza.

— Sarbiderik gabe.

BIZKAIKO CAMPUSA		2010/11						Lan-espereztzia plazzen % 1
		Plazzen kopurua	Kupo orokorra Batzilgoen + LH	Tituludunak plazzen % 2	25-G plazzen % 2	45-G plazzen % 1		
Ateko Gradua	145	6/111 08,728	92/11 06,800	92/11 05,734	92/11 05,625	*	*	
Bioinformatika eta Biologia Molekularreko Gradua	40	92/11 11,003	92/11 05,770	92/10 05,460	*	—	—	
Biologiako Gradua	90	92/11 07,508	92/11 05,233	92/10 05,075	*	—	—	
Bioteknologiako Gradua	40	92/11 10,522	92/11 05,680	92/11 06,088	*	—	—	
Ekonomiako Gradua	100	92/11 05,592	92/11 06,546	*	*	*	*	
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	370	92/11 06,298	*	92/10 05,180	*	*	*	
Erntzaintzako Gradua	165	92/11 10,110	92/11 08,000	92/11 06,917	92/11 07,250	92/11 08,120	92/11 08,120	
Finantza eta Aseguruetako Gradua	60	32/11 05,740	*	*	*	*	*	
Fisikako Gradua	80	6/111 06,017	*	*	*	—	—	
Geologiako Gradua	50	*	*	92/11 06,934	*	*	*	
